

Zotina arriskutsua al da?



Baso bete ur hotz edateak zotina kentzen lagundu dezake.

UME-UMETATIK, ia amaren umetokian gaudenetik hil arte, asko edo gutxi, denok izaten ditugu zotin aldiak. Batzuetan gutxi irauten dute, bestetan gehiago, eta askotan jende artean gaudela irrigarri geratzeko arriskua dugu, kontrolaezina baita.

Antza, zotina gure arbasoengandik heredatutako zerbait da, arrainen arnas brankialaren edota igelen arnas sistemaren gogorapena. Egun, garunak esofagoa defendatzeko bidalitako seinalea da. Kasurik gehienetan urdailean azidotason handia edo ultzera edo antzeko zerbait dugunean sortzen dena.

Medikuen arabera zotinka aritzea ez da larria, baina larritasun aztarnak izan daitezke denboran luzatzen bada eta kroniko bihurtzen bada, hau da, bi egun baino gehiagoz luzatzen bada.

Edozein kasutan, zotinka aritzea deserosoa da ia beti, baina badaude zotina agertzean lagungarri izan daitezken ekintza batzuk: baso bat ur hotz poliki-poliki edatea, birrikak bete eta segundo batzuetan airea askatu gabe eustea edo arnasketa erritmoa minutu batez-edo moteltzea. ■



Biziaren oinarria izan litezkeen molekulak galaxiaren erdian

IKERLARI TALDE alemaniar-estatubatuar batek karbono molekula aurkitu ditu gure galaxiaren erdialdean dagoen Sagittarius B2 gas-laino erraldoian. Molekula horiek molekula konplexuagoak osatzeko oinarriak dituztela adierazi dute.

Orain arte espazioan aurkitutako karbono molekulek pilota itxura dute, hau da, atomoak egitura esferiko itxi batean kokatzen dira, eta oso zaila da egitura horietan beste elementu batzuk itsastea. Aldiz, orain aurkitutako molekulak ahate baten hankaren antza dute: irekiak dira, eta muturretan beste elementu batzuk koka daitezke. Horrek elementu konplexuagoak sortzeko aukera ematen du.

Aurkikuntzak indartu egiten du bizitzaren jatorriaren gakoia izar askoko gunetan dagoela diotenen teoria. ■



NASA

Esne Bidearen erdialdea.



Sexu-kromosomen izendapen klasikoa zalantzan

XX kromosomaduna emea da, XY duena, berriz, arra. Bai? Y kromosomak mutil itxura eman-go dio jaioberriari, eta ugalketa organo maskulinoak, hala da, baina sexu banaketa ez da hain sinplea. Hasteko, lehen esaldian esandakoa ez da beti betetzen. Bestetik, itxura eta sexu-organok bat etor daitezke kromosomekin, baina gerta liteke pertsona ez sentitzea bere itxuraren araberrako sexukoa. Edo hermafrodita izatea. Edo...

ttiki.com/82908
(Euskaraz)

Bihotzekoa izateko arrisku taldekoa zara?

Test anonimoa prestatu dute jaimemoncoeur.fedecardio.org/helbidean; hainbat galderari erantzun ondoren sistemak zure egoeraren laburpena eskaintzen dizu. Hori bai, emaitzak nolabaiteko fidagarritasuna izateko galderei ahalik eta erantzun zintzoena eman behar zaie.

ttiki.com/82909
(Frantsesez)

Amazoniaren azpiko itsasoa

Parako Unibertsitate Federaleko (Brasil) ikerlari talde baten arabera, Amazoniaren azpian pilatuta dagoen urak 160 bilioi metro kubiko okupatzen du. Antza, oso sistema konplexu batean (ibaiak, geruzak...) antolatuta dago, eta Amazoniako oreka hidrokologikoko funtsezkoa da.

ttiki.com/82910
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16